



# **COLECTIVO INDEPENDIENTE DE METRO**

## **NORA ZOAZ, EUSKARA?**

### ***(TIPI-TAPA-REN LANA ETA EUSKARAREN BENETAKO ERREALITATEA METROAN)***

Joan Den ekainaren 11n ospatu genuen azken Euskararen Batzordearen (Tipi-Tapa izenekoa) bilera. Giro ona, lan ederra eta danon arteko lan egiteko gogoia. Batzuk bere egun librean gainera, dana esan behar da, guztion Euskararen aldeko konpromisua azpimarratzeko. Euskararen Metroan gaur eguneko errealitatearen diagnostikoa errepasatu genuen. Orain Elhuyarreko teknikari baten lan eta orientabidearekin ere lan egiten dugu biltzar hauetan (aldatu zen hornitzailea). Bere puntu gogorak eta bere hutsuneak identifikatu ziren, eta azkenean proposamen berriak mahai gainean batu ziren. Esaten dugunez, lan polita eta onuragarria...enpresak ustiatu nahi badu.

Zoritxarrez, egun pare bat pasa eta gero aldizkarian hurrengo albisteak aurkitu genuen:

---

### **Hablar castellano, uno de los requisitos para los ingenieros**

Metro Bilbao busca una ingeniería para que supervise todo el proceso de modernización del suburbano. La empresa pública de transportes ha reservado 7,7 millones de euros para este contrato y ha fijado una serie de requisitos que tendrán que

cumplir las empresas aspirantes.

Uno de ellos es el de hablar castellano, ya que es posible que se presenten varias compañías extranjeras. «El adjudicatario deberá garantizar que todas las reuniones que se celebren en el marco del proyecto se desarrollen en idioma castellano». También será obligatorio que todos los materiales (actas, manuales, comunicaciones...) estén también en lengua española.

---

CIMen lan hauetan sindikatuen betebeharra hau guztiaren fiskalizazioan bideratu egin behar dela uste dugu. Bere eragina langileontzat ea nola izango den ikusi eta ondorio kaltegarriak ohartzen badira aurre egiteko beharra beti mantenduz. Eta gauza bat langileontzat ona ba da, babestu eta indartu.

Egoera hau tristea eta larria dela uste dugu. Gaur egun Euskara eraso handiak jasaten ari da. Bada gure hizkuntza bultzatzeko garaia. Eta gure enpresan kirrinkarik gabe egin dezakegu. Euskararen egoera ez da orain dela 20 urte bezalako. Bere erabilpena eta ezagutza gure eguneroko harremanetan handiagoak dira. Gure gizartean gero eta presentzia gehiago dauka. Eta horretaz harro egon behar dugu danok. Baina gero, egiaren orduan, marmorezko goi-despatxuetan lehentasunak desberdinak eta, esan behar da be, erabat kontrakoak direla ikusiz gero... zertarako hainbeste lana, hainbeste konpromisu, hainbeste ahalegin? Zertarako gatoz gure egun libreetan euskararen aldeko lan bat egiteko? Beste sari pare bat lortzeko baino ez? Aldizkarietako lerroburu dotoretan agertzeko? Edo *ate birakari*en nomina pare bat frogatzeko? Gero errealitatean, enpresaren betebeharrak egiteko unean euskara baztertzen badugu, komisio honetan egiten duguna ezertarako izango da... edo *lumpen laboralari* entretentzeko tresna besterik ez al da Euskara?

Lotsa eta tristura.

Euskararen alde zintzotasunez lan egin nahi badugu metroan, CIM han egongo da. Baina antzerki bat antolatzeke, gurekin ez kontatu. Ez dugu inoren denbora xahutu nahi, ezta gurea galdu nahi ere. Datorren bileran metroan Euskararen benetako norabidea zein izango den ikusiko dugu. Baita geurea ere.

**[www.metrocim.com](http://www.metrocim.com)**